



zerbikas en 5 gidak

**ikasketa eta
zerbitzu solidarioa:
ikasketako
proiektu
integratua**

_ Rafael Mendia



aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1. Proiektuen araberako ikasketa | 4 |
| 2. Ikasketako proiektu integratuak | 4 |
| 3. I+ZS: ikasketako proiektu integratua | 6 |
| 4. Ikasketa pizteko proiektuak | 8 |
| 5. Ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu batean ikasketak txertatzea | 9 |
| 6. I+ZSko proiektuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan txertatzeko aukerak | 15 |
| 7. Hezkuntza berriztatzeko proposamen bat gizartea aldatzeko | 19 |
| 8. Baliabideak | 20 |





Zerbikasen gida berri honek **IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIO**ko proiektuetara hurbilduko gaitu, “ikasketako proiektu integratu” gisa hartuta.

Ikasketa eta zerbitzu solidarioa hezkuntza-arloko proposamen bat da, eta proiektu berean biltzen ditu ikasketa eta erkidegoari zerbitzua emateko lana. Bertan parte hartzen dutenek arazo jakin batekiko motibazioa dute, eta ingurunean jarduten dute, hobetzeko asmoz.


Azken batean, ikasketa eta zerbitzu solidarioa hezkuntza-eredu bat da, eta zentzua hartzen du bere osagai guztiak batera biltzen direnean: ikasketak hezkuntzarako asmo esplizitua du, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eskuratzeko prozesuari lotuta; zerbitzu solidarioak, berriz, erkidegoari zerbitzua ematea du xede, eta, era horretan, harremanetan jartzen ditu herritartasun eraginkorra gauzatzeko prozesua eta ikasketa.

Proiektuetan oinarrituta dagoen metodo bat erabiltzen du, eta, bertan, bat eginda daude ikasketak eta erkidegoari zerbitzua emateko lana. Era horretan, ikasketa eta zerbitzu

solidarioak ekiteko-hausnartzeko prozesuak garatzea proposatzen du, betiere, ikuspegi integratu batetik abiatuta, hartara, balioak eraiki eta sendotu ahal izateko, eta ezagutza eta elkartasuneko sareak eratu ahal izateko hezkuntzako prozesuan dauden haur eta gazteen eta gizarteko aktore guztien artean.

Ikuspegi integratzaile horretatik, trebetasunen edo gaitasunen ikasketa bultzatzen du, pertsonak egokiago aurre egin ahal izan diezaieten biltzen dauden eskakizunei eta erronkei. Horrez gain, prosozialitatea, munduari begiratzea eta oinarritzko beharrezanekiko elkartasuna izatea sustatzen du, lagungarria da pertsonen arteko konfiantzazko esperientziak izan daitezen, elkartzeko gaitasuna garatzen du, kontzientzia zibikoa eta etikaren balioak bultzatzen ditu, eta gazteak akuilatzen ditu gizartean ekintzaileak izan daitezen.

Ikasketa eta zerbitzu solidarioan, parte-hartzaileek dute benetako rol nagusia, gizarteko ekintzailetasuneko ekimenak garatzeko, eta, horien bidez, beren proiektu solidarioa planifikatzeko, antolatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko, hezitzaileen laguntzaz.



1 PROIEKTUEN ARABERAKO IKASKETA

Proiektuen araberako ikasketak hezkuntzako taldearen konpromisoa eta motibazioa garatzen ditu, gero eta erronka konplexuagoak proposatzen baititu, normalean, diziplina asko barne hartzen dituen ikuspegitik; hala, bada, ezagutzaren zatiketa gainditu, eta lan-kidetzako lana bultzatzen du.

Hezkuntzan –eskolan edo eskolaz kanpo– esku hartu behar denean, neska-mutilek proiektuak prestatzen, abiarazten eta ebaluatzen dituzte, eta proiektu horiek benetako munduan ezartzeko modukoak dira, ikasgelatik harantz. Proiektuak interesgarriak eta motibatzaileak dira ikasleentzat, erronka baitira tartean nahastuta dauden neska-mutilentzat. Neska-mutilek eginkizun eraginkorra bete behar dute, hala hautatzean nola prozesu osoaren plangintza egitean.



2 IKASKETAKO PROIEKTU INTEGRATUAK

Ikasketako proiektu integratuak estrategia metodologikoa dira, eta arazoak konpontzea da haien oinarria. Arazo horiek garapen pertsonal, sozial eta/edo profesionalari lotuta daude; eta haiek sorraraziko dituzte esku-hartzeak, oinarrizko gaitasun eta curriculumaren arlo guztietatik jardunez, edota oinarrizko trebetasun psikosozialak garatuz, gizartean eta lanean txertatu ahal izateko.

Ikasketako proiektu integratu bat hauxe da:

- **Proiektu** bat da, hau da, plan zehatz bati jarraiki garatu nahi dugun hezkuntza-arloko ekintza-multzo bat, eta emaitza jakin batzuk lortu nahi ditugu haren bidez, ikasleen interesei lotuta dagoen arazo, zeregin edo egoera bat konpontzeko.
- **Integratua** da, hau da, hezkuntzako ekintzan bertan inskribatzen ditu oinarrizko gaitasun guztien ekarpenak, eta curriculumaren arlo edo hezkuntzako alderdi guztietan duten adierazpena, arazo bat –adibidez, bizitzako benetako egoera bat– konpontzeko prozesuari lotuz.
- **Ikasketa** garatu nahi du, prozesu horren bidez trebetasunak, ahalmenak, ezagutzak, jokabideak, ja-



rrerak eta/edo balioak hartzen eta hobetzen baitira, behaketa, ikasketa, esperientzia, irakaskuntza eta arrazoibidea erabiliz.

Hala, integrazioa proposamen metodologiko gisa sor-tzen da, eta erantzuna ematen dio ikasketaren edu-kiak elkarrekiko harremanetan aurkezteko dagoen beharrari. Funtzionaltasuna lortzeko, ezinbestez lan-du behar dira prestakuntzako alderdi guztiak.

Proposamen honek oinarritzko gaitasunen garapena-ri eman nahi dio erantzuna bereziki. Gaitasunetan oinarritutako ikasketak zentzua hartzen du, bizi-tzako arazo praktikoak konpontzeko aukera ematen badigu, betiere, gertaera batzuen arrazoia eta xedea ikertuz, gertaera historikoen edo errealean azalpenak bilatuz, eta errealitatearen gainean jardunez, bera eraldatzeko.

Xavier Roegiersek honela dio (Roegiers, X. 2006)


“Orduan, integrazioaren pedagogia zera da... ikaske-tak aldiz aldi eraikitzen dituen, eta ikasleei eguneroko bizitzako edozein egoerari aurre egiteko aukera ema-ten dien ikuspegi bat gauzatzea.

- *Integrazioa egon dadin, ikasleak zenbait baliabide eduki behar ditu: ezagutzak (jakintzak), egiten jaki-tea eta izaten jakitea.*

- *Integrazioa egon dadin, ikasleak testuinguru berrian erabili behar ditu ikasketak (egoera-arazo berria). Egoera hori konplexuagoa eta aberatsagoa da ikas-gelako aplikazio edo ariketa bat baino: egoera-ara-zoa konpontzeko hainbat ezagutza (jakintza) eduki behar dira, eta egiten jakin behar da.*
- *Integrazioa egon dadin, ikasleak berez inplikatu behar du egoera-arazoa konpontzeko prozesuan. Ikasleak bere kabuz aurkitu behar du egoera-arazoa konpontzeko baliatu eta egituratu behar diren eza-gutzak eta jakintzak zein diren.”*

Ikasketako proiektu integratuak, ikasketak integra-tzeko pedagogia diren aldetik:

- Aukera ematen diete parte hartzen duten ikasleei edo hezkuntza-taldeko kideei ikasketen eta hainbat diziplinaren artean loturak eratzeko, eta beren ikas-ketak eguneroko bizitzan berriz baliatzeko.
- Aukera ematen diete hezitzaileari, pertsona era-ginkorak eta engaiatuak lortzeko baliagarria den pedagogia erabiltzeko, eta pertsona horiek hartu-tako ikasketak eta gaitasunak balioesteko.



3 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA: IKASKETAKO PROIEKTU INTEGRATUA

Ikasketa eta zerbitzu solidarioa hezkuntzako proposamen bat da, eta hezkuntzako ikasketak garatu, eta era integratuan ematen dio zerbitzua erkidegoari, proiektu bakar baten esparruan. Proiektu bakarra izatea da, hain zuzen, integrazioaren lehen maila. Maila horretan, oinarrizko gaitasunak lantzen dira, eta erkidegoari eman beharreko zerbitzua egituratzen da. Zerbitzu hau da dena egituratzen duen ardatza; haren inguruan eratzen dira ikasketak, eta zentzua hartzen dute.

Egoerei bilatzen zaizkien konponbideetan, ikasitako ezagutzak baliatzea eskatzen zaie ikasleei; horrela, gainera, ikasketa berriak bereganatuko dituzte, proiektu integratu hau egin ahal izateko. Prozesu horretan, planifikatu gabeko beste ikasketa batzuk garatzen dira, eta horiek ere lagungarriak dira neska edo mutilaren esperientzia eta ezagutza aberasteko.

I+ZSko proiektuak ikasketako proiektu integratu gisa daudenean, bi integrazio-mota izan daitezke: ziurrena, gehienetan, "Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza", "Hezkuntza Etiko Zibikoa", "Filosofia" edo "Erljioa" izeneko ikasgaiak izaten dira integrazioaren abiaburua, zeharkako izaera duten ikasgaiak baitira horiek, eta gizartearen arazo

orokorrak eta arazo horien aurrean hartzen den jarrerara etikoa aztertzen baitituzte. Gero, maiz, ikuspegi hori beste ikasgai batzuetara zabaltzen da, eta, azkenean, denek batera duten proiektua ateratzen da.

Erabili daitekeen ikuspegi bat

"Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza" edo "Hezkuntza Etiko Zibikoa" izeneko ikasgaiak zeharkakoak dira gehienbat, beste diziplina batzuen ekarpenekin eginda daude, eta jokabide etiko eta herritarraren atal orokor bat eratzen dute. Ikastetxe batean, ikasturte osoan barrena garatzen diren bost proiektu solidarioen inguruan egituratzen da curriculum. Proiektu horiek beste ikasgai batzuk sartzen dituzte tartean, aurrera atera ahal izateko: Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Natura-zientziak, Hizkuntza edo Matematika.

Ikasketak integratzeko modu bat ezartzeko, curriculumaren hainbat arlo edo ikasgaitan hartutako ezagutzak baliatzea eskatzen duen proiektu bat har daiteke kontuan. Oso formula ohikoa da ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu askotan, betiere, proiektu bakar batean lan egiten bada hainbat diziplinako ikuspegietatik abiatuta.

Adibidez

Lehen Hezkuntzako ikastetxe batek merkatutxo solidarioa antolatzen du urtero, Kongoko Errepublika Demokratikoko eskola baten alde. Hasieran curricu-





lumaren testuingurutik bakartuta zegoen proiektua, pixkanaka-pixkanaka ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bilakatzen da, eta, era horretan, curriculumaren arlo guztiek tartean sartu behar dute, eta haietako bakoitzak proiektuari lotutako alderdiak aztertu behar ditu. Hizkuntza-arloan, Kongoko Errepublika Demokratikoko eskolarekiko komunikazioa lantzen dute, edota merkatariei produktuak eskatzeko gutunak bidaltzen dizkiete. Matematikan, berriz, estatistikak aztertzen dituzte, urteko proiektua egiteko behar den dirua kalkulatzeko dute, merkaturak eta produktuak ikertzen dituzte... Era horretan, arlo guztiak sartzen dira proiektuan, eta, unean uneko ekintza izan beharrean, I+ZSko proiektu bilakatzen da.

Integratzeko beste modu bat haxe da: curriculumaren arloak edo ikasgaiak gai integratzaileen inguruan bateratzea. Bi diziplinako edo hainbat diziplinako ikasketak batean bildu behar dira.

Adibidez


Institutu bateko Bigarren Hezkuntzako irakasleek erabakia hartzen dute hiruhileko bakoitzaren bukarran izaera solidarioko sintesi-proiektu bat garatzeko, erkidegoaren aldeko proiektu bat, hartara, hiruhilekoan barrena hainbat ikasgaitan hartutako gaitasunak erabili ahal izateko. Hasieran, bi ikasgaiek egiten dute bat proiektuarekin: Hizkuntzak eta Gizarteak. Baina, pixkanaka-pixkanaka, gainerako ikasgaiek ere egiten dute bat, ikasleek oinarrizko gaitasunak garatzeari begira dituzten emaitza onak ikusita.

Integratzeko dagoen laugarren modua ondokoa da: diziplina berri bat sortzea, hainbat diziplinak batera dituzten helburuak abiaburutzat hartuta. Gai integratzaileen arabeko ereduak diziplina bakoitzak dituen helburuei eusten die. Modalitate berri honek, berriz, hainbat diziplinak batera dituzten helburuak bateratzen ditu, funtsean, diziplina askotako baterako ekintzak, adibidez, ekintza zientifikoa edota literatura-kritika abiaraziz.

Diziplinen barneko ikuspegian gaude kokatuta, eta ikuspegi hori lagungarria da zeharkako gaitasunak garatzeko, eta, oro har, honezkero badituzten oinarritzko gaitasunak garatzeko, gai horietako bakoitzak, berez, zeharkako izaera baitu.

Aukera bat


Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean, "Jardunbide solidarioen" proiektua gauzatzen da: hala, ikasle guztiek ekintza solidarioko proiektu bat egin behar dute erkidegoan ikasturtean barrena. Irakasleek arloetako edo ikasgaietako edukiak aztertzen dituzte, eta jardunbide solidarioen curriculumak eratzeko dute. Ikasleek eta zerbitzu solidarioko proiektua dinamizatzen duen irakasle zehatz bat arduratuko da jardunbide horien tutoretza egiteaz, gainerako irakasleekin harremanetan egonik. Irakasle-taldearekiko harremanetan egiten da ebaluazioa, oinarrizko gaitasunen garapenera ikuspegitik.



4 IKASKETA PIZTEKO PROIEKTUAK

Proiektuen araberako ikasketak estrategia bat ematen digu ikasketa bizirik egon dadin, eta harremanetan egon dadin benetako bizitzako gaiekin.

Eskoletan proiektu horiek gauzatzeko ez da ohiz kanpoko ezer gehitu behar; proiektuak ikastetxearen Hezkuntza eta Curriculumeko Proiektuan txertatzen dira, eta gainera, aukera baliotsuak eskaintzen dituzte, besteak beste hauek:



Ikasketari begira

- Proiektu bat zehazten da aldi guztietan, hasieratik amaiera arte.
- Lagungarria da ikasketa nabarmena lortzeko, benetan, era praktikoan ezartzen delako.
- Aukera ematen da hausnartzeko eta norberaren ebaluazioa egiteko.
- Benetako balorazioa edo ebaluazioa bultzatzen da, etengabekoa eta integratua.


Ikasleei begira

- Ikasleen rol nagusia pizten da, banaka eta taldeka.
- Testuingurua eta zereginen prozesua aztertzen hasten dira.
- Lagungarria da ikastetxeko kide izateko sentimendua izan dezaten.

Erkidegoari eta ikastetxeari begira

- Ikasleek herritar gisa parte har dezaten bultzatzen da.
- Benetako munduan dauden arazoak aztertzen dira.
- Guztion interesak eta beharrak lotzen dira, eta partekatutako produktuak eta zerbitzuak sortzen dira.





5 I+Zsko PROIEKTU BATEAN IKASKETAK TXERTATZEA


Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea izeneko Zerbikasen 2. gidan agertzen diren proposamenak aintzat hartzen baditugu, I+Zsko proiektu batean ikasketak integratu ahal izateko dagoen lehenengo modua da proiektu bat egiteko beharrezkoak diren urratsak aztertzea, eta curriculumaren arlo guztiekin harremanetan jartzea.

Hezkuntzako eta gizarteratzeko aisialdiko taldeetan, Osasunaren Munduko Erakundeak proposatutako bitzarako trebetasunekin harremanetan jartzea da komenigarriena, *Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarteratzeko estrategia Zerbikasen 3. gidan* azaltzen den gisa.

Babes dezagun baseliza bat

Proiektu honetan, Lehen Hezkuntzako neska-mutilak lanean hasten dira andeatuta eta mehatxatuta dagoen ingurune bat gordetzeko eta babesteko, balio naturalak eta ondare arkitektonikoa duen ingurunea zaintze aldera.

I+Zsko ekimen honek curriculumaren arlo guztiak sartzen ditu tartean, eta hezkuntzako tarte honetako hirugarren zikloak onetsitako proiektua da.



TARTEAN NAHASTUTA DAUDEN ARLOAK

HIZKUNTZAK

Dokumentuetan eta Interneten lekuari buruzko informazioa irakurtzea.

Lekuari eta eraikinei buruzko egunkariko erreportaje bat egitea.

Multimedia dokumental bat egitea.

Korrespondentzia lekuaren ardura duten agintariekin, ingurumena zaintzen jarduten duten erakundeekin, ondare historikoa babesten dutenekin, etab.

Familiei proiektuari buruzko buletina bidaltzea, eta aurkezpena egitea.

Elkarteekin bilerak izatea eta proiektua aurkeztea.

MATEMATIKAK

Lekuaren perimetroa eta azalera aztertzea.

Tarteak aztertzea.

Bolumenak aztertzea eta eraikinaren egoeraren balioespena egitea ehunekoetan.

Babesteko proiektuan lekua zaintzeko lanaren kostua kalkulatzeko, dimentsio guztiak kontuan izanik.

ERLIJIOA

Lekuak erlijio aldetik duen garrantzia.

Baselizaren zaindariak eta jaiak aztertzea.

Erlijiozko tradizioek toki horretan duten garrantzia eta balioa, itxaropenari eusteko, etab.

Erljioak beste erreferentzia pagano batzuekin duen harremana eta kristautzeko prozesua.

INGURUNEAREN EZAGUTZA

Eraikinaren historia aztertzea, dokumentazioa begiratuz eta bertako auzotarrei bisita eginez.

Lekuko zuhaitzak eta landareak aztertzea eta sailkatzea.

Laginak hartzea, argazkiak eta bideoak egitea, eta ingurunea lehengoratzeko aukerak aztertzea.

Lekuko gidak prestatzea, bisitariei lekuak eta haren historiak duen garrantzia azaldu ahal izateko.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Eskolatik lekuraino dagoen ibilbidea aztertzea.

Kilometroak etab.

Jarduera garatzeko egin daitekeen jarduerarik egokiena eta iristeko modurik onena aztertzea.

Ibilbidea edo txangoa egiteko behar den guztia aurreikustea: jangaiak, ura, etab.

Ibilaldia arazorik gabe egiteko prestakuntza fisikoa egitea.

Lanak egiteko gune bat erreserbatzea lekuan, eta diseinua egiteko aukerak aztertzea.

ARTE HEZKUNTZA

Lekuaren planoak.

Planoaren azterketa grafikoa.

Dagoen baseliza marrazkian jasotzea.

Era irudimentsuan, baseliza jatorrian izango zena marrazkian berreraikitzea.

Argazki digitalen erakusketa egitea, lekuaren oraingo egoera eta proiektua burututakoan izango duen egoera erakusten duena.

Lekuaren garai bateko grabatuak, kantzak eta esaerak aztertzea, horrelakorik egonez gero.

HERRITARTASUN ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA

Guztion arazoan tartean sartzeak duen garrantzia.

Herritarren portaerak aztertzea.

Guztion ondarea gordetzea, eta herritarrak lan horretan sartzea.

Herritarren eskubideak eta betebeharrak.

Gune publikoak.

Instituzio publikoen eta gizarteko eragileen erantzukizuna.



Lehen esan dugunez, ikasketak antolatzeko dagoen beste modu bat –gure ustez koherenteagoa den ikuspegi integratzailea duena–, oinarrizko gaitasunen inguruan eratuta dago.

Oinarrizko gaitasunak oinarrizko hezkuntzako curriculum osoa egituratzen duen ardatza dira. Benetako bizitzako arazoei aurre egiteko behar diren ezagutza, jokabide, trebetasun eta balio guztiak dira.

Gaitasun guztiek zeharkakotasunaren osagaiaren bat biltzen dute. Hargatik, haien bidez, koherentzia gehiagoz planifikatu, garatu eta ebaluatu ahal ditugu proiektu integratuak, adibidez, ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuak.


Gaitasunen araberako ikuspegiaren bidez, azaleratu egiten dira bestela ere ezkutatuta egongo liratekeen hezkuntzako prozesuko alderdiak, hainbat diziplina-tako edukien azpian dauden horiek.

Aurreko adibidea gaitasunaren araberako ikuspegi integratzailetik aztertuz gero, lortuko genukeen pro-

posamenak alderdi garrantzitsu batzuk nabarmentzeko aukera ematen digu, adibidez, gizarte- eta herritar-gaitasunak, autonomiarako gaitasuna eta ekimen pertsonala, eta irakasteko eta ikasteko gaitasuna.

Zerbikasen Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea izeneko 2. Gidan, ildo horretako hausnarketa egitea proposatzen da.

Ez dugu gaia agortzeko asmorik, lan egiteko molde bat jaso nahi dugu besterik gabe. Hala, hezkuntzako prozesu integratzaileak garatzeko baliagarria izan dadin, eta adibide gisa, gaitasunaren araberako ondoko koadroa jaso dugu.





PROIEKTUA: BABES DEZAGUN BASELIZA BAT

| GAITASUNAK | DESKRIBAPENA |
|--|---|
| A) KULTURA ZIENTIFIKO, TEKNOLOGIKO ETA OSASUNEKOAREN ARLOKO GAITASUNA. | <i>Baliabide naturalak arduraz erabiltzea, ingurumena zaintzea, zentzuz eta arduraz kontsumitzea, eta norbanakoaren eta taldearen osasuna babestea, pertsonen bizitza-kalitateari begira giltzarri diren osagaiak baitira.</i> |
| B) IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA. | <i>Norberaren gaitasunak eta ezagutzak kudeatzea, eta haiei buruzko kontzientzia eta kontrola izatea, eraginkortasun pertsonala edo gaitasuna izateko sentimendua izanda. Barne hartu behar dira, hala pentsamendu estrategikoa, nola lankidetzan aritzeko eta norberaren burua ebaluatzeko gaitasuna, adimen aldeko lanerako teknikak eta baliabide-multzo bat eraginkortasunez erabiltzea. Ikasketako esperientzia kontziente eta atseginen bidez egiten da, banakako nahiz taldeko teknikak baliatuz.</i> |
| C) MATEMATIKARAKO GAITASUNA. | <i>Era matematikoan arrazoitzeko aukera ematen duten trebetasunak eta jarrerak baliatzea, argudio matematiko bat ulertzea, eta mintzaira matematikoan adieraztea eta komunikatzea, laguntzako tresna egokiak baliatuz, eta matematika-arloko ezagutzak barneratuz bestelako ezagutza-mota batzuetan, hartara, konplexutasun-maila desberdineko bizitzako egoerei erantzun hobea ematen ahal izateko..</i> |
| D) HIZKUNTZA BIDEZKO KOMUNIKAZIOKO GAITASUNA. | <i>Hizkuntza ahoz eta idatziz menperatu behar da era askotako testuinguruetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza bat modu funtzionalean erabiltzen jakin behar da.</i> |
| E) INFORMAZIOAREN TRATAMENDUKO GAITASUNA ETA GAITASUN DIGITALA. | <i>Pertsona autonomoa, eraginkorra, arduratsua, kritikoa eta hausnartzailea izan behar da informazioa, informazio-iturriak eta hainbat tresna teknologiko hautatzean, aztertzean, eta erabiltzean. Jarrera kritikoa eta hausnartzailea eduki behar da eskura dagoen informazioa balioesteko, beharrezkoa izanez gero erkatu behar da, eta informazioa eta informazio-iturriak era guztietako euskarrietan erabiltzeko gizartean adostuta dauden jokabide-arauak errespetatu behar dira..</i> |
| F) GIZARTE- ETA HERRITAR-ARLOKO GAITASUNA. | <i>Inguruko errealitate soziala ulertu behar da, elkarrekin bizitzeko erronkari eta gatazkei aurre egin behar zaie, balio eta jardute demokratikoetan oinarritutako epai etikoa erabiliz, herritartasuna gauzatu behar da, norberaren irizpideari jarraiki, eta bakea eta demokrazia eraikitzeko laguntza emanez, eta jarrera eraikitzailea, solidarioa eta arduratsua izan behar da eskubide eta betebeharrak zibikoak betetzeari begira..</i> |
| G) KULTURA HUMANISTIKO ETA ARTISTIKOKO GAITASUNA. | <i>Artea eta beste kultura-adierazpen batzuk balioesteko eta harekin gozatzeko gaitasuna eduki behar da; nor bere sormen-lanak egiteko arte-adierazpenaren baliabide batzuk erabili ahal izateko, kultura- eta arte-adierazpenen oinarritzko ezagupena eduki behar da, pentsamendu dibergente eta lankidetzako lanerako gaitasunak baliatu behar dira, jarrera irekia, kritikoa eta begirunezkoa izan behar da arte- eta kultura-arloko era askotako adierazpenekiko, norberaren gaitasun estetikoak lantzeko desira eta borondatea behar da, eta interesa izan behar da kultura-arloko bizitzan parte hartzeko, eta kultura- eta arte-ondarea kontserbatzen laguntzeko, hala norberaren erkidegoaren ondarea nola beste erkidego batzuena.</i> |
| H) AUTONOMIA IZATEKO ETA EKIMEN PERTSONALERAKO GAITASUNA. | <i>Banakako nahiz taldeko ekintzak edo proiektuak irudikatuzko, abian jartzeko, garatzeko eta ebaluatzeko gai izan behar da, sorkuntza landuz, eta konfiantza, erantzukizuna eta zentzu kritikoa izanez.</i> |

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO PROIEKTUKO GAITASUNAK

- Lekuko zuhaitzak eta landareak aztertzea eta sailkatzea.
- Ibilbidea edo txangoa egiteko behar dena aurreikustea.
- Taldeko lana.
- Ikasteko teknikak baliatzea proiektuak dituen beharrezan araber.
- Lekuaren perimetroa eta azalera aztertzea.
- Tartek aztertzea.
- Informazioa irakurtzea.
- Erreportaje bat egitea.
- Multimedia dokumental bat egitea.
- Argazki digitalen erakusketa egitea, lekuaren oraingo egoera eta proiektua burututakoan izango duen egoera erakusten duena.
- Datu-baseak erabiltzea.
- Guztion arazoetan nahasteak duen garrantzia.
- Herritarren portaera aztertzea.
- Gune publikoak.
- Eraikinaren historia aztertzea.
- Laginak hartzea. Argazkiak, bideoak eta ingurunea eraberritzeko aukerak.
- Gidak prestatzea.
- Dagoen baseliza marrazkian jasotzea.
- Era irudimentsu batean, baseliza jatorrian izango zena marrazkian berreraikitzea.
- Proiektua diseinatzea eta plangintza egitea.
- Ekimena garatzea.
- Jarduera garatzeko egin daitezkeen txango-mota eta lekura iristeko modurik onena aztertzea.
- Ibilaldia arazorik gabe egiteko prestakuntza fisikoaz
- Adimen-aldeko lan-tresna desberdinak baliatzea, adibidez, informazioa bilatzea, laburtzea, ondorioak ateratzea, etab.
- Bolumenak aztertzea. Ingurunea zaintzeak eragiten duen kostua kalkulatzeko.
- Zerikusia duten agintariekin eta erakundeekin posta bidez harremanetan jartzea.
- Informazioko buletina.
- Hainbat bilatzaile baliatuz Interneten bilatzea.
- Era askotako softwareak erabiltzea diseinu grafikoaz arduratzeko.
- Web gune bat garatzea informazioa jakinarazteko.
- Guztion ondarea gordetzea, eta herritarrak lan horretan sartzea.
- Herritarren eskubideak eta betebeharrak.
- Argazki digitalen erakusketa egitea, lekuaren oraingo egoera eta proiektua burututakoan izango duen egoera erakusten duena.
- Lekuaren garai bateko grabatuak, kantak eta esaerak aztertzea, horrelakorik egonez gero.
- Toki horretan erlijiozko tradizioek duten garrantzia eta balioa, etab.
- Harremanezko arazoak konpontzea.
- Larrialdiak eta ustekabeak konpontzea.
- arduratzea.
- Lanak egiteko gune bat erreserbatzeko aukeraz gogoeta egitea.
- Eskolatik lekuraino dagoen ibilbidea aztertzea: kilometroak kalkulatzeko, etab.
- Proiektua aurkezteko bilera.
- Gidak idaztea.
- Testuak eta kalkulu-orriak prozesatzea.
- Gizarte-sareak baliatzea informazioa trukatzeko.
- Instituzio publikoen eta gizarteko eragileen erantzukizuna.
- Erlijioak beste erreferentzia pagano batzuekin duen harremana eta kristautzea...
- Lekuko planoak eta azterketa grafikoa.
- Lekuak erlijio aldetik duen garrantzia.
- Baselizaren zaindariak eta jaiak aztertzea.
- Emaitzak ebaluatzea.





6 I+Zsko PROIEKTUAK DBH TXERTATZEKO AUKERAK

Batzuetan, ez da aintzat hartzen curriculumeko arlo batzuek ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuak sortzeko duten ahalmena, adibidez, teknologiek edo curriculum-aniztasun edo hasierako lanbide-pretakuntzako programek duten ahalmena. Hala ere, hezkuntzako gailu horiek indar handia dute proiektuen araberako ikasketan, eta, zehazkiago, ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu batzuetan, adibidez, ikasketako proiektu integratuetan.

Teknologiek izaera teknologikoko proiektuak dituzte barne hartuta beren garapenean. Hala ere, erkidegoari emandako zerbitzuari begiratu gero, ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu onak aurkituko ditugu. Horixe bera gertatzen da curriculum anitzeko programekin, izenak berak esaten duenez, proiektu integratuen bidez garatu beharko bailirateke, gutxienez prestakuntza-arloan. Erkidegoari hainbat alderditan zerbitzu ematen aurrera egitea oso ekarpen interesgarria izan daiteke ikasleen autoestimua eta orientabidea garatzeko, prestakuntza- eta lanbide-arloko etorkizunari begira. Era berean, egiaztatu dugunez, ekimen horiek hasierako lanbide-pretakuntzako pro-

grametan egin izan dira, arrakasta handiz egin ere, irakasleak pozik geratu baitira eta ikasleen oinarrizko gaitasunek hoberantz egin baitute. Ikus dezagun proiektu baten azterketa.

Gure adinekoekiko elkartasuna

Bigarren Hezkuntzako eta hasierako lanbide-pretakuntzako programetako neska-mutiek, Oinarrizko Teknologia eta Ikasketako Proiektu Integratuetatik aurrera, egoera txarrean dauden etxebizitzak eraberritzeko asmoa dute, zehazki, egonkortasunik gabe bizi diren adinekoen etxebizitzak.

Herritartasun eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza edo Hezkuntza Etiko Zibikoa izeneko ikasgaietan egindako eta teknologia tailerlean gauzatutako hausnarketa bat da proiektuaren abiaburua.

Iruzkintzen den albiste baten arabera, adineko pertsona batzuk bakarrik bizi dira, goialdeko etxebizitzetan erdi itxita, igogailurik gabe, eta haien etxeak hondatuta daude. Horiek horrela, hausnarketa pizten da, eta horrek aukera ematen du proiektu solidario bat zehazteko eta curriculumaren hainbat arlo sartuz proiektua eraikitzen joateko.

Proiektu teknologiko bat garatzeko plangintza egiten da, alderdi soziala aintzat hartuta, eta bertan curriculumaren hainbat arlo daude nahastuta, eta oinarrizko hainbat gaitasun baliatu behar dira.

PROIEKTUA: ADINEKOEN ETXEBIZITZETAKO HORMAK ETA SABAIK MARGOTZEA

| ALDIAK | EDUKIAK | | |
|--|--|--|---|
| 1. ADINEKOEK OSTATUA HARTZEKO DUTEN ARAZOA ZEHAZTEA ETA AZTERTZEA. | <ul style="list-style-type: none"> • Adinekoekiko elkartasun-proiektua garatzeko hasierako erabakia sakontzea. • Talde honek dituen arazoak zehaztea. | <ul style="list-style-type: none"> • Gure ingurune zehatzeko adinekoen egoera aztertzea. • Adinekoen etxebizitzak eta beren bizibaldintzak aztertzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen erantzukizun soziala aztertzea. |
| 2. INFORMAZIOA BILATZEA MARGOTZEKO TEKNIKEI ETA BEHAR DIREN MATERIALEI BURUZ, ETA, OROBAT, KONTUAN IZAN BEHARREKO PROZESUEI ETA JARDUEREI BURUZ. | <ul style="list-style-type: none"> • Pintura, kolore, material, pigmentu eta teknikei buruzko informazioa. | <ul style="list-style-type: none"> • Katalogoak irakurtzea, Interneten bilatzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Zehaztapan teknikoei buruzko gidaliburuak irakurtzea: tresnak, teknikak, lanak, materialak. |
| 3. ARAZOAREN KONPLEXUTASUNAREN ARABERA KONPONBIDEAK DISEINATZEA ETA EGOKIENAK HAUTATZEA. | <ul style="list-style-type: none"> • Lanak egiteko ordena egokia. • Prestakuntzako aurretiazko jarduerak. • Pinturako akatsei buruzko ideiak. • Behar den azpiegitura. | <ul style="list-style-type: none"> • Azalerak neurtzea eta pinturari buruzko kalkuluak egitea. • Gastuak kalkulatzeko. • Kopuruak kalkulatzeko. | <ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontuak. • Kalkulagailua erabiltzea. • Irtenbiderik egokiena hautatzea. |
| 4. NEURRI DESBERDINEI DAGOKIEN KONPONBIDE EGOKIA HAUTATZEA, PRESTATZEA ETA PLANIFIKATZEA. | <ul style="list-style-type: none"> • Zereginak antolatzea eta banatzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Kalitate-kontrolak. | <ul style="list-style-type: none"> • Taldeak eratzea. |
| 5. GAITASUNAK ETA TEKNIKAK IKASTEAK. | <ul style="list-style-type: none"> • Lanabesak. • Teknikak. • Materialak. | <ul style="list-style-type: none"> • Eragiketak. • Margolaritzako berezko lexikoa. • Babesteko baliabideak. | <ul style="list-style-type: none"> • Higienea eta segurtasuna. |
| 6. LANA EGITEA. | <ul style="list-style-type: none"> • Gomendio teknikoak ezartzea. • Egokitzea. • Altzariak babestea. • Egin beharrezko lanak. | <ul style="list-style-type: none"> • Lanabesak eta makineria mantentzea. • Produktuak eta tresnak ezartzea eta manipulatzeko. • Ehundurak prestatzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Zereginak burutzeko aldiak betetzea. • Gorabeherak eta erabakiak jakinaraztea. |
| 7. ERABILTZAILE, PARTE-HARTZAILE ETA IRAKASLEEN EBALUAZIOA. | <ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizuna eta interesa. • Jarraibideak betetzea. • Garbitasuna eta ordena. • Ekimenak eta lankidetzak. | <ul style="list-style-type: none"> • Zeregina aurreikusitakoaren arabera betetzea. • Erantzukizun sozialari eta herritarren konpromisoari buruzko hausnarketa. | <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzailearen asebetetze-maila. • Amaierako jai taldearekin eta erabiltzaileekin. • Ekintzaren amaierako txostena. |

CURRICULUMEN ARLOAK

- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia.
- Herritartasun eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza edo Hezkuntza Etiko Zibikoa.

- Hizkuntzak.
- Teknologiak.

- Informatika.

- Teknologiak.
- Natura-zientziak.
- Matematika.

- Informatika.
- Plastika eta Ikus Hezkuntza.

- Teknologiak.
- Hizkuntzak.
- Informatika.

- Gizarte Zientziak.
- Gorputz Hezkuntza.

- Teknologiak.
- Plastika eta Ikus Hezkuntza.
- Hizkuntzak.

- Herritartasun eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza edo Hezkuntza Etiko Zibikoa.
- Natura-zientziak.

- Teknologiak.
- Plastika eta Ikus Hezkuntza.

- Natura-zientziak.
- Informatika.

- Hizkuntzak.
- Plastika eta Ikus Hezkuntza.

- Informatika.
- Teknologiak.

GAITASUNIK NABARMENENAK

- *Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna.*
- *Kultura humanistiko eta artistikoko gaitasuna.*

- *Hizkuntza bidezko komunikazioko gaitasuna.*
- *Kultura zientifiko, teknologiko eta osasuneko gaitasuna.*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna.*

- *Kultura zientifiko, teknologiko eta osasuneko gaitasuna.*
- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*
- *Matematikako gaitasuna.*

- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*
- *Kultura zientifiko, teknologiko eta osasuneko gaitasuna.*

- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*
- *Kultura zientifiko, teknologiko eta osasuneko gaitasuna.*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna.*

- *Kultura zientifiko, teknologiko eta osasuneko gaitasuna.*
- *Kultura humanistiko eta artistikoko gaitasuna.*
- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*

- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*
- *Jendetasuna eta herritar gaitasuna.*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna.*

- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*

- *Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala.*
- *Autonomia izateko eta ekimen pertsonalerako gaitasuna.*


- *Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna.*
- *Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala.*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna.*
- *Hizkuntza bidezko komunikazioko gaitasuna.*


- *Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna.*
- *Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala.*
- *Hizkuntza bidezko komunikazioko gaitasuna.*

- *Hizkuntza bidezko komunikazioko gaitasuna.*
- *Matematikako gaitasuna.*
- *Informazioaren tratamenduko gaitasuna eta gaitasun digitala.*

- *Matematikako gaitasuna.*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna.*
- *Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala.*

- *Hizkuntza bidezko komunikazioko gaitasuna.*
- *Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala.*
- *Kultura humanistiko eta artistikoko gaitasuna.*





7 HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO PROPOSAMEN BAT GIZARTEA ALDATZEKO


Hezkuntza-berrikuntzan, arazoak konpontzeko ikerketa-prozesuei eta jarrerei lotuta daude ekintzak, eta aldaketa bat dakarte hezkuntza-arloko praktikan. Hezkuntzako berrikuntzak ikerketa-ekintza bultzatzen du, hala ezagutzak ekoizteko, nola ekintzako esperientzia zehatzak gauzatzeko.

Ikasketa eta zerbitzu solidarioa hezkuntza-arloko joera berritzaile batean sartuta dago, eta eskolaren instituzioa bera gainditzen du, erkidegoari zuzenduta baitago, eta aldaketa sorrarazten baitu gizartean.

Hezkuntzako jardunbidean berrikuntza egiten da, ikasleek beren hezkuntzako ibilbidean duten rol nagusia sustatzen duten prozesuak sartzen baitira. Aldaketak egiten ditu hezkuntza eta irakaskuntzaren itxuran eta muinean. Eskola zabaltzen du, erkidegorantz irekiz, gizarteko beste eragile batzuekin batera aritzen da, elkarreraginean, eta gizartea aldatzeko proiektuak partekatzen dira.

Eskolak hautsi egiten ditu testuingurutik isolatzen zituena harresiak, eta zabaldu egiten da erkidegoaren eragina jasotzeko. Gizarteko eragileak onartzen ditu, hezkuntza-arloko eragile gisa; eta ikasleek, izandako esperientziatik abiatuta, aurrera egiten dute beren herritartasuna garatze aldera.

Ikasketa eta zerbitzu solidarioak, ikasketako proiektu integratua denez, aukera ematen du curriculumaren arloek, hezkuntza-arloko profesionalak eta gizarteko eragileak aurrerantz egin dezaten norabide beretik, ikastetxeko eta erkidegoko hezkuntza-proiektu berean sartuta egonik, hezkuntzako kultura aldatuz eta erkidegoan aldaketa sustatuz.



8 BALIABIDEAK

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOARI BURUZKO LIBURUAK

Cathryn Berger Kaye, M.A. (2004). *The complete Guide to Service Learning*. Minneapolis. EUA.

Martín, X. eta Rubio, L. (2010). *Prácticas de ciudadanía. Diez experiencias de aprendizaje Servicio*.artzelona. Octaedro.

Puig, J. M. (2009). *Aprendizaje y servicio. Educación y compromiso cívico*.artzelona. Grao.

Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*.artzelona. Octaedro.

Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Buenos Aires. Ciudad Nueva.

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei (2010). *Ekin I+Zri! Ikasi eta zerbitzatzeari buruzko gida praktikoa gazteentzat*. Bilbao. Zerbikas.

OINARRIZKO GAITASUNEI ETA PROIEKTUAK GARATZEARI BURUZKO LIBURUAK

Bolibar, A. (2008). *Ciudadanía y competencias básicas*.artzelona. Grao.

Johnson, D. eta Johnson, R. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Buenos Aires. Paidos.

Puig, J. M. eta Martín, X. (2007). *Competencia en autonomía e iniciativa personal*. Madrid. Alianza.

Roegiers, X. (2007). *Pedagogía de la Integración. Competencias e integración de los conocimientos en la enseñanza*. Coordinación Educativa y Cultural Centroamericana (CECC).

Roegiers, X. (2006). *¿Qué es el EPC? Enfoque por las competencias y pedagogía de la integración explicadas a los educadores*. Centro Cultural y de Cooperación para América Central-CCCAC. Frantziako Enbaxada, San José, Costa Rica.

Zabala, A. eta Arnau, L. (2007): *11 ideas clave. Cómo aprender y enseñar competencias*.artzelona. Grao.

ZERBIKAS GIDAK

Rubio, L. (2008). *Zerbikas Gida 0: Ikasketa eta zerbitzu solidarioen sakelako gida*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Puig, J. M.; Martín X. (2007). *Zerbikas Gida 1: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbao Zerbikas Fundazioa.

Hernández, C.; Larrauri, J.; Mendia, R. (2009). *Zerbikas Gida 2: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R; Moreno, V. (2010). *Zerbikas Gida 3: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, gizarteratzeko estrategia*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa

Mendia, R. (2011). *Zerbikas Gida 4: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa: ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzten*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R. (2012). *Zerbikas Gida 5: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ikasketako proiektu integratua*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

PÁGINAS WEB

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: www.aprenentatgeservei.org
CLAYSS (Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario): www.clayss.org

EDUTEKA. Fundación Gabriel Piedrahita Uribe (FGPU) fundazioaren hezkuntzari buruzko doaneko ataria: www.eduteka.org

Escoles Compromeses amb el Món: www.escolescompromeses.org

Global Changemakers: www.global-changemakers.net

In Our Global Village: inourvillage.whatkidscando.org/global_village_project.html

Learn and Serve America's: www.servicelearning.org

National Youth Leadership Council: www.nylc.org

Red Española de Aprendizaje-Servicio: www.aprendizajeservicio.net

Youth Action Net: www.youthactionnet.org

Youth Venture: www.genv.net

Zerbikas Fundazioa: www.zerbikas.es



BILBAO • Indautxu kalea 9, behea

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN • Bizkaia Pasealekua 15-16, behea

VITORIA-GASTEIZ • Errege Atea 20, behea

© Edizio honi dagokiena: **Zerbikas Fundazioa**

ISBN: 978-84-9726-661-1 • L.G.: BI-396-2012

Eskubide guztiak gordeta

Diseinua: Álvaro Pérez Benavente / www.estudionuvola.es

Itzulpena: Labayru

Laguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



fundazioa
zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario

